

Aurkezpen bat eta zenbait gogoeta

'XUXEN' zuzengailu ortografikoaren aurkezpenaren lekuko izateko aukera eman didate orainik orain eta, egia esan, benetan pozgarri eta eskergarri gertatu zait, euskaraz idazten dugunoi eskura jarri diguten baliabide berriaren 'martopil' horietan esku hartzea.

Eskergarri, Informatika Fakultateko talde batek euskararen etorkizunean 'sinetsi' ez ezik, haren alde apustu egiten duelako, beren bizitzako ordu mordo bat horretara zuzendu dutelako eta aurrerantz ere zuzentzeko prest agertu direlako, euskarazko lanetan gabiltzanoi eguneroko zamak arintzeko asmotan.

Pozgarri gertatu zait, bestetik, hainbeste lankide interesatu bertan bildurik ikustea eta oraindik urte gutxi ezin pentsatuzkoa izango zatekeen ikuskizun hori zerbaiten adierazgarri da. Zinez, euskararen munduan urrats ukaezinak eman ditugu, hizkuntz industriari gero eta sartuago gabiltza eta itzulpen ordenadorez lagunduriko itzulpengintza (OLI) eta itzulpengintza automatikoaren (IA) atarian gaude aurkezpeneko mahaitik esan zaigunez. Hori guztia txalogarri, pozgarri, eta eskergarri da.

Baina euskararen munduan dena ez dabil martxa berean, 'abiadura biko' harako Europa horren antzera, behiala Euskaltzaindiak egin zuen 2.000 hitzeko zerrenda zuzendu eta gehitua izango dena (lehenik 5.000 eta geroago 25.000 inguru izango dituen) oraindik askok nahiko genukeen baino gordinago dagoen bitartean, 'Xuxen-ek' 60.000 sarrera, Lur Entziklopediak 60.000 eta Elhuyar Hiztegi Entziklopediakoak 50.000 izateak, esaterako, aski garbi adierazten du etengabe hazten ari den sektore baten premiari eta horren eustazpi izan beharko lukeen Euskaltzaindiaren ikertze-eta finkatze-lana aldeniduzerik dabilzala, kopuruaren ez ezik, lan-metodoetan ere bai seguraski.

Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiak aurkezpenean egoki esan zuenez, baliabide ekonomiko zoritxarrez beti mugatuak, eta gure artean zorionez etengabe areagotzen ari den adituen gaitasuna egoki uztartu beharrean gaude etorkizuneko erronkei itxura-antzean aurre egiteko. Eta 'lehetasunak' hitza aipatu denez gero, onar bekik gogoeta batzuk eskaintzea.

Gauza jakina da zerbait teknologikoki 'moderno', 'modako', 'dernier cri' delako, besterik gabe egitea ez dela irizpide serioa errentagarria izan dadin. Halako solidaritate gisako bat behar da jardueren artean. Inbertsioek halako elkarregokimen bat izan behar dutela beren artean. Txapela nahi duenak, burua behar du lehenik. Mendi-erdia ia gainean dugunok, aski gogoan dugu orain urte batzuk, idi pare gurdiazen atzetik omen zebilelako, gure artean sortu zen astrapala hura, hots, ingelesek «first things first» dioten eta guk «lehenak lehen» itzul genezakeen hura betetzen ez omen zelako.

Ez dut esango ordukoa eta oraingoa gauza bera denik, baina ez liguke inolako kalterik egingo, oraintxe bertan, eztabaida patxada-tsu bat egiteak euskararen erabiltzale, arautzailea eta atontzaileen artean, zeintzuk diren benetako premiari eta lehetasunak eta zer epetan hasi, jarraitu eta bukatzekoak diren jakiteko, aldi berean denborazko eta diruzko kuantifikazioak egingez. Dirua, hemen eta Wall Streeten ondasun urria, mugatua izaten da beti, eta inoiz ez da jakiten zerbait egiteko behar dena asko ala gutxi den, harik eta proiektuak pentsatu, neurtu eta giza eta diru-baliabideetan kalkulatu arte, eta ondoren beste alor eta eremu batzuetako proiektuetan gastatzeko dagoenarekin alderatu baino lehen. Eta hor, itxuraz razionaltasunez erabiltzen diren kopuruaren atzean gizarte-sektore desberdinen autoimajina, indar, mentalizazio-lana, komunikabideen eragina, presio politikoak eta hain razionalak ez

diren beste mila gora-behera izaten dira tar-teko, guztiok ondotoxo dakigunez.

Horregatik, etorkizunari gutxienezko zentzuarekin aurre egin nahi badiogu ezinbestekoa dugu, hemen eta orain, euskararekiko lehetasunak zeintzuk diren, disziplinartekotasuna zer erritmotan bultzatu eta inguruko hizkuntz proiektuekiko zubiak ezartzen noiz eta nola hasi behar dugun erabakitzea.

Eta lehetasunez ari garelarik, nork bereari irizten dio sarridan garrantzizkoen, baina bistan da etxeak behetik gora eraikitzen diren heinean behintzat, —normalean oinarriak lehenago ezarri ohi dira teilak baino, nahiz eta eskailerak, hormak, leihoateak eta abar parez pare egingarriak izan—, eta azken bolada honetan euskalgintzan gabiltzanok gero eta garbiago ikusten dugu euskararen *Corpus* eta *Thesaurus* ahalik eta zabaldu, Europako zenbait hizkuntzatan jadanik apailatzen ari direnen gisako batek erdi-epera eta luzera emango lukeen etekina eta izango lukeen garrantzia hizkuntzaren baitako edozein ikerketa (linguistikoa, soziolinguistikoa, psikolinguistikoa, estilistikoa, traduktologikoa...) egin ahal izateko. Azken urteotan izugarri ugalduta den euskal *corpus* gaur arte bilduari kopuru handitan gehitzea, Europar nagusi den standarraren arabera, lehenbailehen eta hats handiz egin beharreko zerbait da zabarkeria hutsez eguneroko sortzen ari diren ehundaka testu disketeratu galtzen utzi eta ikerketarako funtsezko masa den hori gabe gelditu nahi ez badugu. Horrelako proiektu handi baten inguruan, nik uste, Unibertsitateak, Euskaltzaindiak, idazle- eta itzultzaile-elkarteek, argitaletxe, irakasle eta gainerakoek baluketela aski zeregin eta euskararen baitako ikerketari aro berri baten atari gertatuko litzatekeela.

XABIER MENDIGUREN
ITZULTZAILEA

Amebaren isatsa

BADA gaitz bat beren lanbidearen eraginez irakasleek eta jendaurrean sarri mintzatzen direnek, beren burua sakontzat izan eta ulertuko ez ote dituzten beldur direnek, pelmazoek, eta beste askok jasan dezaketena. Esplikazioak ematearen sindromea. Eta aitortzen dut, lerro hauek idazten ari naizen bitartean neronek ere sindrome hori badudala ohartzen naizela. Baina benetan amorrua ematen duena ez da esplikazioak ematea bera, baizik eta eman beharko liratekeen lekuan eman ezina eta errealtate zabal baten adar bakarrean zintzilik geratu beharra, adarretatik joateko —edota zuhaitzez aldatzeko— batere intenziarik ez izan arren.

Gezurra dirudi Ramon Jauregi bere lehen hitzaldia euskaraz ematen saiatu den garaian, Alli presidenteak Madridero itzultzaileen mus jokoa eteteko adinako saiakera egiten duen garaian eta gobernadore zibilararen hitzaldia euskaraz entzuten dugun or-

duan (honek guztiak hauteskudeei begira aspiranteek beren *aspiradorak* martxan jartzen dituzteneko punduarekin zerikusirik aunitz baduen arren), Madridero zenbait egunkarik euskara jipoitu guran jarraitzea. Eta ez ditzagun geure buruak engaina, egunkariak irakurtzen dituztenek sinetsi egiten dituzte berriak. Eta azkenean gaisotu egiten da bat Madridero etortzen zaizkion lagunei ikastoletan umeei txikiea deskonposatu eta goma2 fabrikatzen erakusten zaizkeneo egia ez dela esplikatzear, beti ere sinetsi ote didate-ez ote didate, zalantza mingarri horretan geratuz.

Sineskaitza zaidan arren, ez dagokit niri Iñaki Martinek 'El País' egunkarian dioena gezurra dela esatea, gogor salatu beharrekoa iruditzen zait ordea 'El País' egunkariak lekukotza hori aurkezteko garaian izan duen borondate maltzurra. Ezin aurkez daiteke horrelako artikulua bat 'Vivir en un internado en euskera. Treinta días en un campo de

concentración ideológico' izenburua lehen orrialdean dakarrela, barnetegi guztien eredu eta euskararen ikaskuntzarako formula uniboko gezurkide bezala azalduz. Zinez, bilatzen zutena euskarari kalte egitea bazen, lortu dute.

Eta behin zigor itxitura ideologikoei buruz hitzegiten hasita, gaiari buruko bere iritzia emango lukeen makina bat jende balezte deritzot, nahiz eta Madridero egunkariak nekez emango dieten edozein igandetan bi orrialde bete eta marrazkilaria borondate txarreko bat, beren zigor, beren itxitura eta pairatzen duten zapalkuntza ideologikoa esplikatzeko. Kasu horretan, norbere kabutarako gorde behar esplikazioak.

Amebak ezin baitu mugitu isatsik ez badi.

HARKAITZ CANO
IDAZLEA

BERRIAKZIRI



RAMON JAUREGI
PSOE-PSEko idazkari nagusia
ABC

«Ez ditugu lortu bergizarteratze politikari esker lortu nahi genituen arrakasta guztiak»



AGUSTIN IBARROLA
Artista
EL CORREO

«Sailburuek eta EAEko kultur arloko beste hainbat goi karguk ez digute uzten iritzirik ematen»



WILLIAM HURT
Aktorea
EL PAIS

«Niri ez zait gustatzen filme bat ikustera joatea bertan sustoa hartu eta beldurak egoteko»



JAIME MAYOR OREJA
EAEko PPko lehendakaria
DEIA

«Ez dut euskara ikasi eta ez dut ikasiko»

ZAKILIXUT

© Olariagak

